



Azaroaren 25ean “Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna” dela eta, aurten, Berdinsarearen (berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka egiteko **EUDELEK** eta **EMAKUNDEK** sustatutako Euskadiko Udalen Sarea, martxoaren 7an eratu) barruan egindako lanari esker, Euskadiko udalek sentsibilizaziorako kanpaina bateratua jarriko dute abian.

Emakumeek jasaten duten indarkeria punta-puntako arazo sozial eta politikoa da. 2005ean, Euskal Autonomia Erkidegoan, Ertzaintzaren komisarietan 2.824 salaketa jarri ziren emakumeenganako tratu txarreatik, eta 317 salaketa emakumeen askatasun sexualaren aurkako delituengatik. Urte horretan bertan, 3 emakume hil zituzten haien bikotekideek. 2006ko lehenengo seihilekoan, emakumeek 1.387 salaketa jarri dituzte tratu txarreatik, eta 125 salaketa, berriz, askatasun sexualaren aurkako delituengatik. Gainera, denbora-tarte horretan, emakume bat hil da haren bikotekidearen indarkeriagatik.

Euskadiko Herri Administrazioek emakumeenganako indarkeria prebenitzeko eta biktimei laguntza emateko ekintza ugari egin dituzte, euren eskumenen barruan. Aipagarria da herrialde honetako agintari gorenek 2001eko urriaren 18an sinatutako *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima izandako emakumeei laguntza emateko erakundeen arteko akordioa*. Akordio hori onartu zenetik, Euskadiko erakundeek nabarmen handitu dituzte emakumeenganako indarkeria prebenitu eta ezabatzeko egindako ekintzak. *Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboaren III. Planaren* azken ebaluaziorako txostenean jasotako informazioaren arabera, Euskadiko Herri Administrazioek 2004. urtean egindako ekintzak 2001ean (akordioa martxan jarri aurreko urtea) egindakoen bikoitza izan ziren, 110etik 224ra pasatuz. Hazkunde hori hurrengo urteetan ere mantendu da.

Euskadiko erakundeak gero eta indar gehiagoz egiten ari diren ekintza horien barruan, Euskadin lehen aldiz, sentsibilizazio kanpaina bateratua sustatuko da 41 udalerritan. Mezu eta irudi bera erabiliko da Euskadiko populazioaren %68tik gora bizi den udalerrietan. Horrek esan nahi du indarkeria jasaten duten emakume guztiekiko udal konpromisoa indar gehiagorekin helduko dela emakume eta gizon gehiagorengana.

Berdinsarea sarearen barruan sartuta dauden eta bertan lan egiten duten 31 udalez gain, seguruenik laster sarean sartuko diren beste 10 udal ere gehitu dira urtero errepikatzeke asmoa dagoen sentsibilizazio kanpaina aitzindari honetara.

Kanpainak mezu eta irudi komuna dauka zenbait produktu eta piezatan. Horrek marko manipulagarri eta aldagarria ahalbidetzen du, eta, ondorioz, udal bakoitzak bere errealitate eta udal beharrezanetara egokitu du kanpaina hau.



Kanpainaren helburu nagusiak:

- 1) Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna iragarriko duen kanpaina bat garatzea.
- 2) Mezu ezkorretatik ihes egitea.
- 3) Etorkizun itxaropentsua aurkeztea.
- 4) Kaltetuak maila sozial baxukoak direlako ideia apurtzea.
- 5) Ezkututzen den eta, ezkutatu eta baztertzen den heinean, ezabatzeko modukotzat hartzen ez den arazo baten estetika iluna ezabatzea.
- 6) Herritar guztiak inplikatzeko, eta, ondorioz, emakume zein gizonengana zuzentzea.
- 7) Indarkeria jasan duten edo oraindik ere jasaten duten emakumeen autonomiaren sustapenean lan egitea eta emakume horiei hondotik ateratzen laguntzea.

Parte-hartzeari buruzko datuak

- 170.000 triptiko eta 160.000 itsaskor sartuko dira postontzietan.
- 5.000 kartel inguru jarriko dira.
- Euskadiko etxeetara kanpaina honen 76.000 postal bidaliko dira.
- Egun horretarako 84.000 zapi banatuko dira tabernetan, pankartak eskegiko dira udaletxeetako balkoietan, eta abar.

Gainera, udal askok "banner" bat jarri dute dagoeneko euren webguneen orri nagusian, herritarrei kanpaina honi buruzko informazioa emateko eta emakumeenganako indarkeriaren aurka denok inplika gaitzeen animatzeko.

Mezu positiboa

Kanpaina honek ihes egin nahi du emakumeenganako indarkeriaren kanpaineri lotutako estereotipoetatik.

Ez da arazoa aurkezten; konponbideari heltzen zaio. Aldaketa metafora batekin adierazten da: ubelduraren, kolpearen eta, azken batean, erasoaren ordez, elementu positibo bat jartzen da. Pentsamendu more bat, egunero ikus dezakeguna gure udalerrietan. Aldaketa posiblea dela da iradoki nahi den mezua. Mezu itxaropentsua da. Pieza argi eta zuri batean dago sartuta, eta norantz joan nahi dugun adierazten du. Era berean, piezaren protagonista den pertsonaren jarrera emakume autonomo batena da, bere bizitzako agintea hartzeko gai dena. Pieza honen bitartez, indarkeria jasaten duten emakumeek etorkizun hobea ikus dezaten nahi dugu. Dagoeneko, kontua ez da emakume babesgabe bat irudikatzea, baizik eta guztiontzako eredu bat erakustea, gaitzearren eta aldaketaren adibide bat, zeinetan herritar guztiak, baina batez ere emakumeak, diren protagonista.

Deklarazio Instituzionala

Era berean, Euskadiko udalek egun horrekin eta dakarren guztiarekin hartu duten konpromisoari indar gehiago emateko, Berdinsareak Deklarazio Instituzional bat proposatu die Udalbatzei (karpetan eman zaie medioei), azaroaren 25eko ekitaldiak direla-eta onartua izan dadin.